

**Bizkaiko Foru Aldundiak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia egin du.** Euskara eta Kulturako foru diputatuaren 822/2018 FORU AGINDUA, martxoaren 22koa; horren bidez, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdiaren oinarriak onesten dira. Foru Agindua 2018ko apirilaren 10ean argitaratu da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

#### **Nork har dezake parte deialdi honetan?**

Deialdi honetara aurkeztu ahalko dira bai funtzionarioak eta lan-hitzarmen finkodunak, bai bitarteko funtzionarioak baita aldi baterako kontratua duten langileak ere, eskabidea egiteko epearen barruan kontratua indarrean badute.

#### **Nola egin eskabidea?**

Eskabidea egiteko, jo helbide honetara:

<http://app.aldundia.bfa/apps/danok/KJ00/euskara/>.

#### **Eskabidea egiteko epea**

Epea 2017ko apirilaren 11n hasi eta apirilaren 30ean (biak barne) bukatuko da

#### **Azterketa-probak**

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko prozesuak bi azterketa ditu: idatzia eta ahozkoa. Azterketa idatzian irakurmena eta idazmena neurtuko dira, eta ahozko azterketan, mintzamina eta entzumena.

Derrigorrezkoa da trebetasun guztiak gainditzea emaitza orokorra "GAI" izateko.

#### **Emaitzak**

Azterketa-proben emaitzak posta elektronikoz jakinaraziko dira, edo intraneteko orrian ikusi ahal izango dira

**Ziurtagiriak non jaso** Azterketa hauen bidez hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatzen dutenek IVAPeko zuzendariaren ziurtagiria Azterneten bidez izango dute eskura (kontsultak/IVAP HE ziurtapenak), inprimagarria den euskarri digitalean. Era berean, ziurtagiri digitala eskuragarri izango da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan, «nire izapideak» atalean. Paperean ere jaso dezakete interesatuek, IVAPI idatziz berariazko eskaera eginez gero.

#### **OHARRA:**

- Baliabide informatikorik izan ezean GUFeko trebakuntza eta euskara arloan egingo da (944067657-944067669 telefonoetan).

#### **AZTERKETAREN EMAITZA GORDETZEA**

Irakurmena, idazmena eta entzumena gainditzen duten izangaiak salbuetsita egongo dira gainditutako trebetasun horiei dagozkien ariketak egitetik hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren hurren-hurrengo deialdian. Hortaz, zuzenean aurkeztuko dira mintzamenaren azterketara.

Aipatu salbuespenaren barruan eta baldintza berberetan egongo dira IVAPen aurreurreko deialdian aurkeztu eta, lortutako emaitzen arabera, egoera berean aurkitzen diren Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomiadunen zerbitzuean diharduten langileak ere.

Mintzamina, irakurmena eta entzumena gaitzen duten izangaiak salbuetsita egongo dira gaitutako trebetasun horiei dagozkien ariketak egiteko hizkuntza-  
eskakizunak egiaztatzeko probetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren hurrengo deialdian. Hortaz, zuzenean aurkeztuko dira idazmenaren azterketara.

Hala ere, izangai horiek probetarako izena eman beharko dute hurrengo deialdian eta dagokion epearen barruan.